

DEKANOA

Sarriko bilakaera bete-betean dago, egungo ekonomia eta gizarte testuingururak eskatzen dituen betekizunekin bat etorritik.

Alde horretatik, nazioartekotzen jarritako indarra, irakaskuntzaren berrikuntza eta gizartearekiko harremanak hiru ardatz garrantzitsu dira.

Fakultateak oso posizio ona du arlo horietan. Nazioartekotzeaz lotuta, Unibertsitateko postu onenetako bat betetzen du ikasleen mugikortasunean eta, beraz, baita nazioarteko programetako partaidetza ere. Gainera, nazioarteko titulu bikoitzen eskaintza areagotu egin da aurtien Helsinki gehitu denean, aurreko Berlin eta Lyonez gain. Ingelesez eskaintako kreditu kopurua UPV/EHUko altuenetako bat da. Egoera hori sendotzeko unea da, proposamen akademiko egituratu eta sinergiarri baten bidez.

Irakaskuntzako berrikuntzari dagokionez, Docentiaz programako eta HBPren askotariko deialdietako partaidetza handiena duen ikastegietako bat da.

Gizarteari buruzko harremanei dagokionez, eskaintako praktika kopurua Unibertsitateko altuenetako bat da.

Datu horiek guztiak, gure unibertsitateko kideek urtetan egindako etengabeko lanaren fruitu, Fakultateak Euskal Unibertsitate osoan posizio sendoa duela erakusten dute.

Ildo beretik, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza dual ibilbidea ezarriko da hurrengo ikasturterako, enpresarekin harreman estu eta konprometitu baten bitartez ikasleen enplegarritasuna areagotzeko asmoz, aldi berean titulazioan hobekuntza dinamikak sortuz.

Mahai paritarioa ikasleen ordekaritzari lotutako organoa da, eta ikasleekin komunikatzeko bitarteko gisa funtzionatzen jarraitzen du. Hala ere, belaunaldi aldaketa dela eta, beharrezko egiten da ikasleen partehartzea hauspotzea.

Fakultatearen graduondoko eskaintza handitzeko zorian dago, titulu ofizialen kudeaketa hari transferitzearen bitartez. Dena den, egoerari aurrea hartuz, iaz Graduondoko Komunitatea sortu zen baterako sustapen ekintzak partekatu eta koordinatzeko; abenduan, gainera, askotariko eskaintzen erakusketa egun bat egin da Sarriko atondoan, iragarkiari jarri dira ikastegiko pantailan, eta graduondoko eskaintza bidali zaie Fakultateko lagarren ikasturteko ikasleei.

Hurrengo etaparako, aipatutako gai guztiak ikastegiko ohiko funtzionamendu egituretan zehaztu behar dira, kohesio maila altuagoa eman, ekintza estrategiko kategoriarekin. Sarriko behar du, Sarriko merezi du.

Jon Barrutia



Unibertsitate Orientaziorako Azoka

Bizkaiko Campuseko Unibertsitate Orientaziorako Azoka otsailaren 10ean egin zen, eta jende ugari bildu zen. 4.200 pertsonak parte hartu zuten, eta Sarriko eta Bizkaia Aretoan antolatu zen.

Sarriko bildu zen jende gehien. Han jarri ziren jakintza arlo guztietako unibertsitate ikastegietako standak, Osasun Zientzietakoak izan ezik; horiek Bizkaia Aretoan jarri ziren.

Gainera, gure ikastegia aukeratu zuten unibertsitate zerbitzuetako stand guztiak jartzeko (unibertsitate orientazioa, desgaitasunen bat duten pertsonentzako arreta, arreta psikologikoa, campuseko bizitza, mugikortasun programak, graduondoko ikasketak, praktikak eta enplegua, eta UPV/EHUko sarbidea eta beka).

Azoka 09:00etatik 14:00etara egin zen, eta informazio saioak ere eman

ziren standei atxikitako ikasgeletan. Hala, ikastegi bakoitzak aukera izan zuen interesdunei bere titulazio guztien berri emateko.

Azkenik, Ikasleentzako Argibide Zerbitzuaren eskaintzak bi informazio saio ere egin zituen ikastegietako saio horietan, unibertsitateko sarbideari eta mugikortasun programei buruz.

Isabel Perea

Erasmuseko ikasleen harrera

Urtero bezala, urtarrilaren 26an harrera ekitaldia egin zitzaion mugikortasun programako ikasle atzerritarrei. Herreran, Fakultatearen aurkezpena egin zen, taldearen argazkia atera zen eta kontu akademikoei buruzko laguntza eman zen. Amaitzeko, lunch txiki bat egin zen.

Ikasleek ESN (Erasmus Students Network) elkarte boluntarioekin jarraitu zu-

ten, eta boluntarioek hirian egin daitezkeen kultur eta kirol jardueri buruzko in-

formazioa eman zieten.

Aitor Ciarreta



Irteera profesionalei buruzko jardunaldiak

Martxoan, etorkizuneko ekonomialarientzako Irteera Profesionalei buruzko Jardunaldien deialdi berri bat egin zen, Ekonomisten Euskal Elkargoarekin elkarlanean.

Lehen saioan hizpide izan zuten zein garrantzitsuak diren CVa eta elkarrizketa, enplegua eta autoenplegua bilatzen arrakasta izateko. Miguel Ángel Callek (MAC Asesores y Consultores), Alberto Barriosek (MASDOSA)

eta Laura Garrok (Hautaketako aholkularia eta espezialista) dinamizatu zuten saioa.

Ondoren, hainbat sektoretako enpresek adierazi zuten prestakuntza ona oso garrantzitsua dela (ikasketak eta hizkuntzak), baina ez direla ahaztu behar jarraia, konpromisoa, ekimena eta halako balioak. Sektore hauetako enpresek parte hartu zuten: kontu ikuskaritza eta aholkularitza (PwC,



PKF Attest, Grant Thornton, BDO, Management Solutions), banka eta finantzak (Kutxabank, Laboral Kutxa eta Caja Rural), marketin arloa (Irudigital, Magnatic Consulting eta Aurman) eta Seguros Bilbao eta Intertek.

World café egitasmoa izan zen ikasleek ondoena baloratu zituzten saioetako bat. Fakultateko kafetegian egin zen, eta Ekonomisten Euskal Elkargoak antolatu zuen, enpresen aukeraketako aditu hauekin batera: HAYS, FERRUELO & VELASCO, MICHAEL PAGE, ADECCO

ETA MASDOSA Honako gai hauei lotutako gaiak landu ahal izan zituzten: tituludun berri gisa erakutsi behar diren jarrerak, lan merkatura sartzeko garatu behar diren gaitasunak, enpresek eskatzen dituzten ezagutzak, etab.

Jardunaldiak amaitzeko, mahai inguru bat egin zen: "Enpresek eskatzen dituzten gaitasunak eta gazte graduatuek dituzten gaitasunak. Enplegatzaileen ikuspegia", Iñaki Periañez kideak moderatuta.

Izaskun Ipiñazar

BC3 ikertzaile taldea

Aitor Ciarreta irakasleak jakinarazi digu BC3ko ikertzaile talde bati artikulu bat argitaratu diotela eta oihartzun

handia ari dela izaten komunikabideetan. Open Access-en dago, eta hemen duzue esteka:

<http://www.thelancet.com/>

[journals/lanph/article/](http://www.thelancet.com/journals/lanph/article/)

[PIIS2542-5196\(18\)30029-9/fulltext](http://www.thelancet.com/journals/lanph/article/PIIS2542-5196(18)30029-9/fulltext)

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea AlreFen aholkularitza kontseiluan egon zen



IFlax (erakunde fiskal independenteak) Administrazioetako arau fiskalak eta aurrekontu aurreikuspenak betetzea monitorizatzen duten gobernuetako erakunde publiko independenteak dira. AlReF (erantzukizun fiskaleko agintaritza independentea) da Espainiako IFla. Argazkian agertzen dira AlReF aholkularitza kontseiluko kideak eta gonbidatu batzuk, Bartzelonan egin-dako 2018ko ekainaren 7ko bileran. Argazkian agertzen dira, besteak beste, honako hauek: Ekonomia eta

Enpresa Fakultateko irakasle Javier Gardeazabal (ezkerretik hasita lehenengoa), eta Ekonomia eta Enpresa Fakultateko ikasle ohi Carlos Monasterio (Oviedoko Unibertsitateko katedraduna, ezkerretik hasita bigarrena) eta Andreu Mas-Colell (Kataluniako Generalitateko Ekonomiako kontseilari ohi eta Universitat Pompeu Fabrak katedradun emeritua, ezkerretik hasita zazpigarrena). <http://www.airef.es>

Javier Gardeazabal

Eduardo Pérez Ruizen bisita

Martxoaren 9an, bisitan etorri zitzaigun Eduardo Pérez, Espainiako BDOko Financial Advisory saileko bazkide arduraduna. Arlo horretan sartzeko garatu behar diren gaitasunak, enpresek eskatzen dituzten ezagutzak, etab.

Nazioarteko BDOko "Global Corporate Finance Group" eta "Global Financial Services Group" taldeetako kide da.

Esperientzia zabala du (25 urte baino gehiago) jardueraren sektore askotako konpainien finantza balorazioan eta aholkularitzan, eta haren bezeroen artean daude honako hauek: konpainia kotizatuak, familia taldeak, finantza eta aseguru erakundeak, inbertsio funtsak eta abar, hala estatukoak nola nazioartekoak.

Eduardo gure Fakultateko ikaslea izan zen; EAZn graduatu zen, eta Fi-

nantza Ekonomia II saileko irakasle izan zen. Finantza arloan zentratu izan zen beti, eta bereziki enpresen balorazioaren esparruan. Ikasten jarraitzeko zuen gogoia zela eta, MBA bat egin zuen Bradford University School of Management unibertsitatean, eta, hala, bere ibilbide profesionalari ekin zion enpresa munduan. KPMGko Corporate Finance saileko zuzendari bihurtu zen, eta finantza taldeko enpresa partaidetzen arloko inbertsioen gerente.

Haren laguntasuna ez ezik, eskertzekoa da gure Fakultatearekin lan egiteko eta gure ikasleei ahal duen guztian laguntzeko izan duen prestasuna. Eskerrik asko, Edu, munduan zehar "Sarriko sentimendua" harro zabaltzeagatik.

<https://www.bdo.es/es-es/oficinas/madrid>

Iñaki Periañez



Workshop on Adaptive Learning

Maiatzaren 7an eta 8an, Makroekonomiako Ikaskuntza Moldagarriaren ikerketa ildoko tailer bat egin zen Bizkaia Aretoan.

Tailerreko programan, Europako eta Estatu Batuetako unibertsitateetako ikertzaileek eginiko 11 ikerketa lan aurkeztu ziren, eta bi hitzaldi eman zituzten George W.

Evans (University of Oregon) eta Albert Marcet (Barcelona Graduate School of Economics) irakasleek.

Espainiako Bankuak finantzatu du workshop hau, "Aprendizaje con datos en tiempo real en un modelo EGED de media escala" izeneko ikerketa proiektuaren bitartez. Jesús Vázquez irakaslea da ikertzaile

nagusia (Ekonomi Analisieraren Oinarriak II Saila) Honako hauek osatu zuten workshopeko zientzia batzordea: Rafael Wouters (National Bank of Belgium), Sergey Slobodyan (Saint Petersburg, National Research University) eta Jesús Vázquez.



Pei Kuang irakaslea (University of Birmingham).

Jesús Vázquez

Gazte ekintzaileak Sarrikon



Epaimahaikideak: Jon Barrutia, Antonio Barrena, Eider San Antonio, Leire Zubero, Mila Gallastegi eta Jorge García del Arco.

Aurten ere Fakultatean egin da El Correok sustatutako Starta Innova lehiaketako gazte ekintzaileen finala. Bosgarren edizio honetan, Bizkaiko eta Arabako 34 ikastetxetako 793 ikaslek

parte hartu dute, eta 18 urtetik beherako bost talde eta 18 urtetik gorako beste bost iritsi dira finalera.

Jon Barrutia

EAEko gazteen enplegarritasunari eta lan merkatuak sarbideari buruzko ikerketa, Europako eskualde ikuspegi konparatu batetik

Martxoaren 16an, EAEko gazteen enplegarritasunari buruzko ikerketa aurkeztu zen EAEko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean, Jon Barrutiak koordinatuta. Ikerketak Euskadiko demografiaren, hezkuntzaren eta lan merkatuaren panorama zehazten du, etorkizuneko enpleguak 4.0 iraultzaren testuinguruan izango dituen

ezaugarriak aurreratzen ditu, eta EAEko gazteen lan merkatua aztertzen du Europako eskualde ikuspegi konparatu batetik. Hauek izan dira hautatutako eskualdeak: Bavaria, Flandes eta Eskozia. Hemen dago ikerketa, osorik:

<http://www.cesegab.com/Portals/0/Libros/ESTUDIO%2014.pdf>

Jon Barrutia



Elurra izan genuen gurean

Otsailaren 28an elurra izan genuen gurean, eta hotza ez ezik bista ikusgarriak ere utzi zizkigun.



2018ko otsailaren 20an, 2016/2017 ikasturteko graduazio ekitaldia izan zen. Aitabitxia Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Diputatua José María Iruarizaga izan zen.



Agathe CHENEBEAUren bisita

École La Mache (Frantzia) eskolako Nazioarteko Harremanetako Bulegoko Agathe Chenebeauk Fakultatea bisitatu zuen apirilaren 18an.

École La Mache eskolak lan-kidetza hitzarmen bat du Bilboko Ingeniaritza Fakultatearekin, eta hitzarmen horren harira egin zuen bisita.

Helburua da hainbat fakultetetako trukeko ikasleen kudeaketari buruzko informazioa partekatzea.

Aitor Ciarreta



Ikasleen bisita Iberdrolako Akziodunen Batzar Orokorrera



Día del Accionista
Akziodunaren Eguna
Shareholder Day
Dia do Acionista
/ 2018



Apirilaren 13an, Finantza Ekonomia II saileko Josune Amondarain eta Marcela Espinosa irakasleek Iberdrola enpresako akziodunen batzar orokorra eraman zuten Goi Mailako Finantza Kontabilitatean matrikulatutako EAZko 2. mailako 20 ikasleko talde bat. Bilboko Euskalduna Jauregian egin zen batzarra.

Halaber, konpainiako presidentete Ignacio Galánek, akziodunen aurrean egin zuen hitz hartzean, 2018 ekitaldirako emaitzen aurreikuspena azaldu zuen: kalkulatu du taldearen Ebitda % 20 haziko dela, 9.000 milioi euro gainditu arte, eta irabazi garbia ia 3.000 milioi eurokoa izango dela. Bilakaera horrekin, taldeko presidentek aurreikusten du dibidenduak hobetzen ja-

rraituko duela.

Ikasleek aukera izan zuten Espainiako enpresa onenetako bateko akziodunen batzar orokorrean hartutako erabakien zuzeneko lekuko izateko, eta modu esplizituan eta zuzenean egiaztatzeko irakasgaiari landutako gaiaren garrantzia.

Josune Amondarain



Ekonomialariek Sara de la Rica saritu dute

Euskal Herriko Unibertsitateko katedradun Sara de la Ricak Euskadiko txosten soziolaborala egiten duen taldea zuzentzen du, eta Ekonomisten Euskal Elkargoak "urteko ekonomista" izendatu du.

2018ko V. Ekonomistak Sariak honako hauek balioetsi

ditu bereziki Sara de la Ricarengan: "besteak beste immigrazioaren, lan merkatuaren, emakumearen eta pobrezia-aren arloko gaietan konponbidea lortzeko egin duen lana, nazioartean ezaguna; izan ere, Ekonomistak Euskal Elkargoak ere balio horien gainean

lan egiten du".

Sari honekin, Ekonomisten Elkargoak publikoki egin nahi die aitorpena bakarka edo modu kolektiboan ekonomia-aren, enpresa ereduaren eta gizartearen garapenari ekarpena egiten dioten eta enpresa, gizarte eta giza balioak

sustatzen dituzten pertsoneri eta erakunde publiko eta pribatuei.

